Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

# EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

## LH 4. maila

2024-2025 IKASTURTEA

## ZUZENTZEKO KOADERNOA

# MATEMATIKARAKO GAITASUNA

**SERVICIO DE INSPECCIÓN EDUCATIVA** – Sección de Evaluación
**HEZKUNTZAKO IKUSKAPENAREN ZERBITZUA** – Ebaluazioa Atala

# INDIZEA

I. LABURPENA ........................................................................................................5

II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK .....................................................................7

III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN ....................................................................................13

Honako hau da atal bakoitzaren edukia:

- I. LABURPENA

  Probaren item bakoitza **zein motatakoa** den, zein duen **erantzun zuzena**, lor daitekeen **gehieneko puntuazioa**, dagozkion **oinarrizko jakintza, konpetentzia espezifikoa** eta **ebaluatutako prozesua** taula batean bildu dira.

- II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK

  Zuzendu beharreko item bakoitzaren **ebazpena** eta **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak**.

- III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

  Ikasleari emandako liburuxka bera, item bakoitzaren erantzuna nabarmendu delarik.

# I. LABURPENA

**Matematikarako gaitasuna** frogak 20 item ditu. Horietako bederatzi zuzendu eta kalifikatu behar dira:

**1, 4, 5, 10, 12, 13, 15, 16 eta 19**

Item bakoitza zein motatakoa den, zein duen erantzun zuzena, lor daitekeen gehieneko puntuaketa, dagozkion oinarrizko jakintza, konpetentzia espezifikoa eta ebaluatutako prozesua ageri dira taula honetan:

| Itema | Erantzunaren mota | Erantzun zuzena | Gehieneko puntuazioa | Oinarrizko jakintza | Konpetetzia espezifikoa | Ebaluatutako prozesua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Irekia | Ikus II. atala | 3 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 2 | Itxia | C | 1 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 3 | Itxia | D | 1 | Zentzu espaziala | Komunikazio eta irudikapena | Ezagutzea eta erreproduzitzea |
| 4 | Irekia | Ikus II. atala | 2 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 5 | Irekia | Ikus II. atala | 2 | Zenbakizko zentzua | Arrazoitzea eta probatzea | Arrazoitzea eta hausnartzea |
| 6 | Itxia | A | 1 | Zentzu espaziala | Komunikazio eta irudikapena | Ezagutzea eta erreproduzitzea |
| 7 | Itxia | B | 1 | Neurriaren zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 8 | Itxia | B | 1 | Meirroarem zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 9 | Itxia | B | 1 | Zentzu espaziala | Komunikazio eta irudikapena | Ezagutzea eta erreproduzitzea |
| 10 | Erdieraikia | Ikus II. atala | 1 | Zenbakizko zentzua | Loturak | Arrazoitzea eta hausnartzea |
| 11 | Itxia | A | 1 | Zentzu espaziala | Komunikazio eta irudikapena | Ezagutzea eta erreproduzitzea |
| 12 | Erdieraikia | Ikus II. atala | 2 | Neurriaren zentzua | Arrazoitzea eta probatzea | Arrazoitzea eta hausnartzea |
| 13 | Erdieraikia | Ikus II. atala | 2 | Zentzu estokastikoa | Komunikazio eta irudikapena | Ezagutzea eta erreproduzitzea |
| 14 | Itxia | A | 1 | Zentzu estokastikoa | Arrazoitzea eta probatzea | Arrazoitzea eta hausnartzea |
| 15 | Irekia | Ikus II. atala | 2 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 16 | Erdieraikia | Ikus II. atala | 1 | Zenbakizko zentzua | Loturak | Aztertzea eta aplikatzea |
| 17 | Itxia | C | 1 | Zenbakizko zentzua | Komunikazio eta irudikapena | Ezagutzea eta erreproduzitzea |
| 18 | Itxia | A | 1 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta Aplikatzea |
| 19 | Irekia | Ikus II. atala | 2 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |
| 20 | Itxia | D | 1 | Zenbakizko zentzua | Problemak ebaztea | Aztertzea eta aplikatzea |

**Puntuazioa guztira: 28**

# <u>II. ZUZENDU BEHARREKO GALDERAK</u>

Atal honetan zuzendu beharreko itemen **ebazpena** zein **zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak** agertzen dira. Item hauek dira zuzendu eta kalifikaztu beharrekoak:

**1, 4, 5, 10, 12, 13, 15, 16, eta 19**

-----------------------------------------------------------------

**1.** BURUZKO KALKULUA:

| | |
|---|---|
| A kalkulua | Mendizale batek ordubete eman du etxetik Xorroxingo ur-jauzira joaten eta handik etxera bueltatzen. 40 minutu eman baditu ur-jauziraino joaten, zenbat minututan egin du buelta? 20 minututan. |
| B kalkulua | Artzain batek 250 ardiko artaldea dauka. Bi talde berdinetan banatu ditu ardiak. Zenbat ardi egongo dira talde bakoitzean? 125 ardi |
| C kalkulua | Unaik 27 amuarrain zenbatu ditu Baztan ibaian eta Laurak 11 ahate. Zenbat animalia zenbatu dituzte guztira? 38 animalia |
| D kalkulua | 80 : 2 : 5 = *(80 zati 2… <u>2 segunduko etena</u>... zati 5 berdin…)*. 8 |
| E kalkulua | 6 + 9 + 8 - 7 = *(6 gehi 9… <u>2 segunduko etena</u> … gehi 8 … <u>2 segunduko etena</u> … ken 7 berdin…)*. 16 |
| F kalkulua | 8 x 7 - 9 = *(8 bider 7 … <u>2 segunduko etena</u> … ken 9 berdin …)*. 47 |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Erantzun zuzen bakoitzeko 0.5 puntu | 0 - 3 |

**4.** Lagun talde bat Arizkungo hipikara joan da. Hipikako sarreran egin daitezkeen jarduerak eta beren prezioak daude:

| JARDUERAK | Prezioak pertsonako |
|---|---|
| Ordubeteko paseoa | 22 € |
| Bi ordutako paseoa | 44 € |
| Hiru ordutako paseoa | 62 € |
| Ordubete heztegian | 22 € |
| Ordu erdi heztegian | 15 € |

Lau lagunek ordubeteko heztegiko jarduera egin dute, eta bost lagunek hiru ordutako paseoa. Zenbat euro ordaindu dute guztira?

Idatzi eragiketa(k) eta soluzioa.

| Ebazpena |
|---|
| Era bat baino gehiago dago. Hona horietako bi:<br>- 22 x 4 = 88 62 x 5 = 310 88 + 310 = 398<br><br>- 22 + 22 + 22 + 22 + 62 + 62 + 62 + 62 + 62 = 398<br><br>Soluzioa: **398 euro.** |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Planteamendua ondo egin du, emaitza zuzena lortu du eta idatzi du. | 2 |
| Planteamendua zuzen egin du, baina **akats bakar bat** egin du kalkuluetan (akats bat baino gehiago egiten badu, ez da puntuatuko). | 1 |
| Planteamendu okerra edo erantzunik ez. Era berean, eragiketa adierazi gabe erantzuna (baita zuzena denean ere) idazten badu, ez da puntuatuko. | 0 |

**5.** Zigako familia bat Erratzuko kanpinera joan da.

Amak 16 € ordaindu behar ditu dendan. Ordaintzeko unean Laurak eta Unaik nola ordain dezakeen esan diote amari:

- Laura: “16 € ordaindu ditzakezu hiru billete eta bi txanpon erabiliz.”
- Unai: “16 € ordaindu ditzakezu bi billete eta hiru txanpon erabiliz.”

Idatzi bakoitzak pentsatu dituen billeteak eta txanponak:

| Ebazpena |
|---|
| - Laura: 5 euroko hiru billete eta 50 zentimoko bi txanpon.<br>Erantzun baliokideak onartu behar dira, adibidez, 5+5+5+0,5+0,5.<br><br>- Unai: 5 euroko bi billete eta 2 euroko hiru txanpon.<br>Erantzun baliokideak onartu behar dira, adibidez, 5+5+2+2+2. |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Laura eta Unairen erantzunak zuzenak direnean. | 2 |
| Erantzun bakarra zuzena denean. | 1 |
| Bestela. | 0 |

**10.** Aurkitu Baztan bailarako biztanle-kopurua honako hauek kontuan harturik:

- Hamarrekoen zifra ehunekoen zifraren laurdena da.
- Lau zifrako zenbaki bakoitia da.
- Biztanle-kopurua 7000 baino handiagoa da.
- Ehunekoen zifra milakoen zifra eta batekoen zifraren arteko batura da.

Idatzi laukitxo bakoitzari dagokion zifra: Baztanen | 7 | 8 | 2 | 1 | biztanle dago.

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Erantzuna zuzena denean. | 1 |
| Bestela. | 0 |

**12.** Berroetako bi lagun Baztan ibaira joan dira eta lau harri jaso dituzte.
Beltzez, berdez, arrosaz eta urdinez margotu eta gero, irudiko bi pisaketa egin dituzte:



Adieraz ezazu esaldi hauetako bakoitza egia (E) ala gezurra (G) den:

| | V | F |
|---|---|---|
| Harri beltzak urdinak baino gutxiago pisatzen du. | X | |
| Harri beltzak eta berdeak harri urdinak baino gutxiago pisatzen dute. | | X |
| Harri berdeak eta harri arrosak berdin pisatzen dute. | | X |
| Harri beltzak eta harri arrosak, berdeak eta urdinak bezala pisatzen dute. | | X |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Erantzun zuzen bakoitzeko 0.5 puntu | 0 - 2 |

**13.** Begiratu grafikoan zenbat litro bota zituen 2023ko lehen lau hilekoan Baztanen:

Adieraz ezazu esaldi hauetako bakoitza egia (E) ala gezurra (G) den:




| | V | F |
|---|---|---|
| Martxoan 100 litro bota zituen. | | X |
| Euri gehien egin zuen hilabetea apirila izan zen. | | X |
| Urtarrilean apirilean baino 30 litro gehiago bota zituen. | X | |
| Apirilan, otsailean baino hiru aldiz euri gehiago bota zuen. | X | |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Erantzun zuzen bakoitzeko 0.5 puntu | 0 - 2 |

**15.** Irudian dauden poteetan txokolatezko pilulak eta gominolak sartu nahi ditugu:



Bost pote hartu ditugu bakoitzean 39 txokolate-pilula sartzeko. Gainontzeko poteetan 329 gominola sartuko ditugu guztira, pote bakoitzean gominola-kopuru berbera botaz.

Zenbat gominola sartuko dugu pote bakoitzean?

| **Ebazpena** |
|---|
| - 12 – 5 = 7 (onartzen da buruz kalkulatzea).<br><br>- 329 : 7 = **47 gominola pote bakoitzean.** |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | | | |
|---|---|---|---|
| **329 : 7 zatiketaren planteamendua** | **Zatiketaren emaitza** | **Soluzioa idatzi** | **Kalifikazioa** |
| Zuzen | Zuzen | Zuzen | 2 |
| Zuzen | Zuzen | Oker | 1.5 |
| Zuzen | Oker | Zuzen | 1 |
| Zuzen | Oker | Oker | 0.5 |
| Bestela | | | 0 |

**16.** Beheko zenbaki-zuzenean gezi bat agertzen da, potoan zenbat pipa zuritu dagoen adierazten duena.




Zenbat pipa zuritu dago?

Idatzi zifra laukian.




| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | |
|---|---|
| | **Kalifikazioa** |
| Erantzuna zuzena denean (3 100 pipa). | 1 |
| Bestela. | 0 |

**19.** Juanek 77 gozoki ditu. Amaiak Juanek baino 28 gozoki gutxiago ditu.

Zenbat goxoki dituzte bien artean?

| **Ebazpena** |
|---|
| - 77 – 28 = 49.<br><br>- 49 + 77 = **126 goxoki.** |

| ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK | | | |
|---|---|---|---|
| **77 – 28 kenketa planteatu eta ebatzi** | **Aurreko atalean lortu duen emaitzaren eta 77aren arteko batuketa planteatu** | **Soluzioa idatzi** | **Kalifikazioa** |
| Zuzen | Zuzen | Zuzen | 2 |
| Zuzen | Zuzen | Oker | 1.5 |
| Zuzen | Oker | Zuzen | 1 |
| Oker | Zuzen | Zuzen | 1 |
| Bestela | | | 0 |

# III. KOADERNOA SOLUZIOEKIN

Azkenik, ikasleei emandako liburuxka bera ageri da atal honetan item bakoitzaren erantzuna adierazi dugularik.

-------------------------------------------------------

**1.** BURUZKO KALKULU-ARIKETA:

| | |
|---|---|
| A kalkulua | Mendizale batek ordubete eman du etxetik Xorroxingo ur-jauzira joaten eta handik etxera bueltatzen. 40 minutu eman baditu ur-jauziraino joaten, zenbat minututan egin du buelta?<br>20 minututan. |
| B kalkulua | Artzain batek 250 ardiko artaldea dauka. Bi talde berdinetan banatu ditu ardiak. Zenbat ardi egongo dira talde bakoitzean?<br>125 ardi |
| C kalkulua | Unaik 27 amuarrain zenbatu ditu Baztan ibaian eta Laurak 11 ahate. Zenbat animalia zenbatu dituzte guztira?<br>38 animalia |
| D kalkulua | 80 : 2 : 5 = *(80 zati 2… 2 segunduko etena... zati 5 berdin…)*.<br>8 |
| E kalkulua | 6 + 9 + 8 - 7 = *(6 gehi 9… 2 segunduko etena … gehi 8 … 2 segunduko etena … ken 7 berdin…)*.<br>16 |
| F kalkulua | 8 x 7 - 9 = *(8 bider 7 … 2 segunduko etena … ken 9 berdin …)*.<br>47 |

# Baztan



Nafarroako iparraldean dagoen bailara bat da. 15 herri, izen bereko ibai bat eta hainbat borda daude. Jende askok bisitatzen ditu herri ederrak, ingurune naturalak...

---

**2.** Argazkiko herria Amaiur da. Idoia, Pablo eta gurasoak 10:40an iritsi dira Amaiurrera. Errota, gaztelua eta herria bisitatu dituzte.



1 ordu eta 45 minutu egon dira herrian. Zer ordutan joan dira Amaiurretik?

A. 11:45ean.
B. 11:25ean.
C. 12:25ean.
D. 12:45ean.

**3.** Pablok hainbat argazki atera ditu Amaiurrera egindako bisitan.
Begira izatzu irudian gorriz adierazita dauden bi egurrak:



Aukera ezazu erantzun zuzena:

A. Bi egurrak perpendikularrak dira.
B. Bi egurrak zeiharrak dira.
C. Bi egurrak horizontalak dira.
D. Bi egurrak paraleloak dira.

**4.** Lagun talde bat Arizkungo hipikara joan da. Hipikako sarreran egin daitezkeen jarduerak eta beren prezioak daude:

| JARDUERAK | Prezioak pertsonako |
|---|---|
| Ordubeteko paseoa | 22 € |
| Bi ordutako paseoa | 44 € |
| Hiru ordutako paseoa | 62 € |
| Ordubete heztegian | 22 € |
| Ordu erdi heztegian | 15 € |

Lau lagunek ordubeteko heztegiko jarduera egin dute, eta bost lagunek hiru ordutako paseoa. Zenbat euro ordaindu dute guztira?

Idatzi eragiketa(k) eta soluzioa.

Ikus II. atala

Guztira **398 euro** ordaindu dituzte

**5.** Zigako familia bat Erratzuko kanpinera joan da.

Amak 16 € ordaindu behar ditu dendan. Ordaintzeko unean Laurak eta Unaik nola ordain dezakeen esan diote amari:

- Laura: “16 € ordaindu ditzakezu hiru billete eta bi txanpon erabiliz.”
- Unai: “16 € ordaindu ditzakezu bi billete eta hiru txanpon erabiliz.”

Idatzi bakoitzak pentsatu dituen billeteak eta txanponak:

**Laura:** 5 €-ko hiru billete eta 0,50 €-ko bi txanpon.

**Unai:** 5 €-ko bi billete eta 2 €-ko hiru txanpon.

**6.** Begira itzazu baserritar batek bere bordan bildu dituen belarraren irudiak:







Zein gorputz geometrikoren antza dute belar-fardoak eta belar-metak?

A. Zilindroarena eta konoarena.

B. Zilindroarena eta piramidearena.

C. Kuboarena eta konoarena.

D. Prismarena eta konoarena.

**7.** Familia batek Elbete herria bisitatu du. Herriko plazan irudi hau ikusi dute lurrean:



Karratu guztiak berdinak dira eta bakoitzaren aldeak metro bat neurtzen du.

Kalkula ezazu irudiaren perimetroa:

A. 35 m.

B. 24 m.

C. 12 m.

D. 28 m.

**8.** Familia Elbeteko ostatura sartu da eta honako hau eskatu du:



- Litro eta erdiko botila bat ur.
- 250 mililitroko botila bat freskagarri.

Guztira, zenbat mililitro dira?

A. 2250 ml.

B. 1750 ml.

C. 1550 ml.

D. 1250 ml.

**9.** Hona hemen Iruritako frontoia:



Luciak eta Xabierrek frontisaren simetria-ardatzak marraztu dituzte:

| Luciaren simetria-ardatzak | Xabierren simetria-ardatzak |
| --- | --- |
|  |  |

Esaldi hauetako bat bakarrik da zuzena. Adieraz ezazu zein den:

A. Xabierren marrazkia ongi dago eta Luciarena gaizki.

B. Luciaren marrazkia ongi dago eta Xabierrena gaizki.

C. Bi marrazkiak ongi daude.

D. Bi marrazkiak gaizki daude.

**10.** Aurkitu Baztan bailarako biztanle-kopurua honako hauek kontuan harturik:

- Hamarrekoen zifra ehunekoen zifraren laurdena da.
- Lau zifrako zenbaki bakoitia da.
- Biztanle-kopurua 7000 baino handiagoa da.
- Ehunekoen zifra milakoen zifra eta batekoen zifraren arteko batura da.

Idatzi laukitxo bakoitzari dagokion zifra:

Baztanen | 7 | 8 | 2 | 1 | biztanle dago.

**11.** Begiratu Oronozko erreka bateko igelen irudiari.

| Lehen igela | Bigarren igela | Hirugarren igela |
|---|---|---|



<u>Bigarren igelak</u> galdetu du: “zein igel dago nire eskubian?”

Aukeratu erantzun zuzena:

A. Lehen igela.

B. Bigarren igela.

C. Hirugarren igela.

D. Ez dago igelik bigarren igelaren eskubian.

**12.** Berroetako bi lagun Baztan ibaira joan dira eta lau harri jaso dituzte. Beltzez, berdez, arrosaz eta urdinez margotu eta gero, irudiko bi pisaketak egin dituzte:



Adieraz ezazu esaldi hauetako bakoitza egia (E) ala gezurra (G) den:

| | E | G |
|---|---|---|
| Harri beltzak urdinak baino gutxiago pisatzen du. | X | |
| Harri beltzak eta berdeak harri urdinak baino gutxiago pisatzen dute. | | X |
| Harri berdeak eta harri arrosak berdin pisatzen dute. | | X |
| Harri beltzak eta harri arrosak, berdeak eta urdinak bezala pisatzen dute. | | X |

**13.** Begiratu grafikoan zenbat litro bota zituen 2023ko lehen lau hilekoan Baztanen:




Adieraz ezazu esaldi hauetako bakoitza egia (E) ala gezurra (G) den:

| | E | G |
|---|---|---|
| Martxoan 100 litro bota zituen. | | X |
| Euri gehien egin zuen hilabetea apirila izan zen. | | X |
| Urtarrilean apirilean baino 30 litro gehiago bota zituen. | X | |
| Apirilan, otsailean baino hiru aldiz euri gehiago bota zuen. | X | |

**14.** Lekarozeko eta Anizko bi ikasle ardi-txartelekin jolasten ari dira. Hainbat txartel sartu dituzte lau poltsatan.

Zein poltsatan dago aurpegi zuriko ardia ateratzeko probabilitate gehiago?

Aukeratu erantzun zuzena:

A.



B.



C.



D.



# Litxarreriak



Pertsonek litxarreriak erosten dituzte: gominolak, gozokiak, erregalizak, pipak...

Ez da gomendagarria litxarreria asko jatea, ez baita osasungarria.

---

**15.** Irudian dauden poteetan txokolatezko pilulak eta gominolak sartu nahi ditugu:



Bost pote hartu ditugu bakoitzean 39 txokolate-pilula sartzeko. Gainontzeko poteetan 329 gominola sartuko ditugu guztira, pote bakoitzean gominola-kopuru berbera botaz.

Zenbat gominola sartuko dugu pote bakoitzean?

Idatzi eragiketa(k) eta soluzioa.

Ikus II. atala

Pote bakoitzean **47 gominola** sartuko ditugu.

**16.** Beheko zenbaki-zuzenean gezi bat agertzen da, potoan zenbat pipa zuritu dagoen adierazten duena.




Zenbat pipa zuritu dago? **3100 pipa**.

**17.** Enpresa batean 5894 gozoki egin dituzte astebetean.

Gozokien kopurua kontuan harturik, gutxi gorabehera, zenbat hamarreko egin dituzte?

A. Gutxi gorabehera 5 hamarreko.

B. Gutxi gorabehera 58 hamarreko.

C. Gutxi gorabehera 589 hamarreko.

D. Gutxi gorabehera 5890 hamarreko.

**18.** Litxarreria-fabrika batean erregalizak 6 metroko zerrendatan egiten dituzte. Ondoren, zerrendak 8 zentimetroko zatitan mozten dituzte.



Jakin nahi dugu zenbat zati-erregaliz lortzen dituzten tira batekin.

Adierazi emaitza zuzena emango duen eragiketa:

A. 600 ÷ 8

B. 6 ÷ 8

C. 600 ÷ 80

D. 60 ÷ 8

**19.** Juanek 77 gozoki ditu. Amaiak Juanek baino 28 gozoki gutxiago ditu.



Zenbat goxoki dituzte bien artean?

Idatzi eragiketa(k) eta soluzioa.

Ikus II. atala

Bien artean **126 goxoki** dituzte.

**20.** Behatu irudiari:



Uxuek irudian dauden goxokien $\frac{2}{3}$ jan du.

Zenbat goxoki jan du?

A. 3 goxoki.

B. 4 goxoki.

C. 6 goxoki.

D. 8 goxoki.